



LUKAS AIERBEKO - Antzerkiak/ koronabirus garaian

PERTSONAIAK:

- Lukas
- Epailea
- Lukasen abokatua

SALATARIAK

- Zorrotza (1)
- Zorrotza (2)
- Zorrotza (3)

LEKUKOAK

- Mariandresa
- Don Bittorino
- Martxelino

JOASIKEROAK

MUXINARIAK



EPAIKETA

1. ESKEMA:

JOASIKEROAK:

- Lukas...! Non dago sendabidea?
- Akerburu...!
- Gezurtia...! Lapurra...!
- Non dago gure bizitza osasuntsua?

2. ESKEMA:

EPAILEA:

- Jaun andreok: hemen gaude gaur Lukas Aierbekoren epaiketa burutzeko...

Mariandresa, lehenengo lekukoa, altxa zaitez...!

(Mariandresaren istorioa)

ZORROTZA (1)

- Mariandresa, herriko gazte hau oso jatorra zen, baina usaimena eta dastamena erabat galduta zituen. Gainera, orain ezin du ezer jan, ez diolako janariari zaporerik ateratzen... argal-argala jartzen ari da eta beti triste malkotan dabil.

Berak bere usaimena eta dastamena sano eta bestearnak bezain finak izan nahi zituen. Horrexegatik, Lukas Aierbekoarengana joan zen...eta... begira denok...!



ORAINDIK USAIMENA ETA DASTAMENA
GALDUTA DITU...!!!!

MARIANDRESA:

- Sutaraaa... Akerburuuuu...!

ABOKATUA:

- Lukas, egia al da... Mariandresak
gaixotasun larria zuela usaimenean eta
dastamenean?

LUKAS:

- Bai horixe, oso larria...

ABOKATUA:

- Eta... egia al da... gaixotasunaren ondorioz
jateari uzteko arriskua zuela?

LUKAS:

- Bai

ABOKATUA:

- Sendatu al zenuen?

LUKAS:

- Ez, baina aldeaz aurretik eskuak askotan
eta oso ongi garbitu behar zituela
aholkatu nion. Berak, ordez, ez zidan
kasurik egin

ABOKATUA:

- Mariandresa, nola dituzu orain usaimena
eta dastamena?

MARIANDRESA:

- Ez dut ezer usaintzen ezta zaporerik
ateratzen janariari!!!!. Sutara...! Sutara...!

JOASIKEROAK:

- Sutara...! Sutara...! Akerburu...!



3. ESKEMA

EPAILEA: - Bigarren lekukoa, altxa zaitez!

(Don Bittorino nekazariaren istorioa)

ZORROTZA (2): - Gizon hau zein langile eta zintzo den, denok dakigu.

Diru pixka bat bildu ondoren (urte luzeak lan egin eta gero), itsaso ondoan apartamentu bat erosi nahi zuen.

Baina erosi aurretik, etxe hori sendoa zen ala ez jakin nahi zuen, eta Lukas Aierbekorengana jo zuen galdetzera.

Eta gizon gezurti honek etxe hori hoberena zela ziurtatu zion. Beraz, Don Bittorinok pozik itsasoko apartamentua erosi zuen.

LEKU HOBERENEAN BAZEGOEN, BAINA LEHENENGO HILABETEA IGARO ONDOREN... HARA JOATEKO AUKERA BUKATU ZEN.

Geroztik... oporrik ez!

DON BITTORINO: - TXAKURBURU...! SUTARA...!

ABOKATUA: - Don Bittorino, etxe hori sendoa zen ala ez... jakin nahi zenuen, ezta?

DON BITTORINO: - Bai

ABOKATUA: - Eta... benetan etxe on bat da?

DON BITTORINO: - Bai

ABOKATUA: - Baina, Lukasek bazekien pandemiarekin ezin izango ginela gure herrialdetik atera?



DON BITTORINO: - Ez, ez zekien

ABOKATUA: - Beraz, Lukas errugabea da. Don Bittorinok itsasoko apartamentu on bat aurkitu zuen, nahiz eta hilabete bat bakarrik aprobetxatu.

Gainera, Don Bittorino, nola dakizu hemendik denbora batera ez duzula aukera izango berriro oporretara hara joateko?

DON BITTORINO: - SUTARA...! AKERBURU...!

JOASIKEROAK: - SUTARA...! TXAKURBURU...!
AKERBURU...! SUTARA...!

4. ESKEMA

EPAILEA: - Hirugarren lekukoa!

(Martxelinoren istorioa)

ZORROTZA (3): - Herriko festetan jaialdi bikainak antolatzen dira, hemen, Burlatan. Gure jendearen artean gauzarik politena lagun koadrilak elkartzea da, dudarik gabe.

Orain berriz talde txikiak, distantziak mantentzen eta musukoa jarrita elkartzen dira gazte gehienak eta zoriontsu dira bertan parte hartzen. Baina gure Martxelino, ez.

Bera inoiz ez dago ados. Gizarajoak egoera hori aldatu nahian, Lukas Aierbekorengana jo zuen konponbide baten bila.

Eta hemen, orain epaitzen ari garen gizon maltzur honek, aholku bat eman zion zera



esanez:(*musukoa erakutsiz*) "Hau jartzen baduk, askoz lasaiago elkartu ahal izango haiz lagunekin".

Martxelinok, ilusioz josita, sinistu eta hartu zuen, begira oraindik du musuko hori, ez du galdu.

Handik hamar egunera ez zen eskolan agertu... gaixorik omen zegoen... PCR bat egin behar zioten... POSITIBOA eman zuen... eta BERRIRO GELA OSOA KONFINATUTA GERATU ZEN!!!!!!...

MARTXELINO:

- SUTARA...! TXAKURBURU...!

ABOKATUA:

- Lukas, eman al zenion MUSUKO hori Martxelinori?

LUKAS:

- Bai

ABOKATUA:

- Azalduko al diguzu nola erabiltzen den musukoa?

LUKAS:

- Bai. Belarritatik hartuta aurpegian jartzen da. Ez da eskuekin ukitu behar, ezta kentzen eta jartzen ibili behar. Beti jantzita eraman behar dugu eta garbia mantendu. Baina horrela ez baduzu egiten ez du ezertarako balio.

ABOKATUA:

- Hau dena Martxelinori azaldu al zenion?

LUKAS:

- Bai, noski.

ABOKATUA:

- Baina Martxelinok askotan kentzen zuen eta ez zuen garbitzen... Hau da, gaizki erabili zuen. Beraz, Lukas errugabe da.



MARTXELINO: - TXAKURBURU...! SUTARA...! SUTARA...!

JOASIKEROAK: - TXAKURBURU...! SUTARA...! SUTARA...!
ARTABURU...! SUTARA...!

5. ESKEMA

EPAILEA: - Entzun ditugun salaketa guztiak kontuan hartuz... eta Lukas Aierbekoren abokatua entzun ondoren...

Epai-mahaikoek erabaki hau hartu dugu:

Lukas Aierbeko, aztia... aurten ez dugu sutara botako zuzen jokatu duelako.

Bera ordeztu KORONABIRUSA zigortuko dugu, bera errudun da...!

Eta zigorra... SUTARA...!

MUXINARIAK:

1. - Bai, bai... ez zaitez erruki, epaile jauna...! Koronabirusa zigortu...!
2. - Gu ere joan gara Lukas Aierbekorengana ... eta mesede handiak egin dizkigu...
3. - Bera ezagutu baino lehen... ez genekien zer egin birus honekin... beti lagundu egin digu.
4. - Azken hauetan, berriz... zoriontsu ginen...
5. - Eta osasuntsuagoak ere... berari esker...



6. - Birusik ez... mesedez...! konfinamendurik ez, mesedez...!
7. - Normaltasunera bueltatu nahi dugu...
8. Koronabirus, errukia... errukia...

GUZTIAK: - Errukia ... errukia ... errukia...!!

JOASIKEROAK: - IXILIK..., KORONABIRUSA SUTARA...!
SUTARA...!
AKERBURU ...! ARTABURU...! TXAKURBURU...!